

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Museoak 'Calignometrias' erakusketarako bisita gidatua antolatu du ikusmen-ezintasuna dutenentzat

Egileak, Koldo Sebastianek, erakusketaz gozatzeko jende guztiarentzako bisita gehiago gidatuko ditu iraileko igandeetan

Martes, 23 de agosto de 2011

Datorren ostiralean, abuztuak 26, egun Nafarroako Museoak aldi baterako erakusketa-gelan dagoen *Calignometrias* aldi baterako bildumako egile Koldo Sebastianek, bere obraren berri emango die ONCEko eta Nafarroako Erretina Elkarteko hogeitun kideri.

Duela bi hamarkada baino gehiagotik, museoaren nahia bere bildumak era guztietako bisitariei hurbiltzea da, ezintasunen bat duten pertsonen artean berezia eskainiz. Izan ere, erakunde horren eta ONCEren arteko harreman bat dago eta, horri esker, zenbait kultur proposamen gauzatu ahal izan dira.

Calignometrias (angulu *-gnom-* perfektuaren *-cali-* neurriak, *-metrias-*), Koldo Sebastian artista nafarrak azken 10 urteotan egindako sorkuntza plastiko bat eta, horretarako, bi faktore erabili ditu: alde batetik, sorta honen planteamendu kromatikoa guztiari eusten dioten hiru koloreen hautaketa (gris pizarroa, zuri zinka eta itzal naturala), eta inspirazio-iturria Creusko Lurmuturreko (Girona) haitzen tonuetan topatzen duena. Bestetik, hiru dimentsio geometrikoek osatzen dutena (plano baten alde, haren erdia eta laurden bat) eta puntu, linea, plano nahiz bolumenaren harremana, eta haietatik abiatuz 90 gradutako angeluarekin elkar eragiten dutenak.

Haren emaitzak, bi dimentsiokoak nahiz hirukoak, honako era honetan ulertu behar dira: "jolas-bokazioa duen jolas moduan; bertan, itxura organiko eta elementu arrazionalen osagaien bat-egitetik abiatuta, emaitza plastiko bat lortzeko asmoa dago, non zenbakia nahiz neurria bezain garrantzitsuak diren zehaztugabea eta difusoa dena".

Nafarroako Museoan egingo den saioak bi zati izango du: lehenengoa tailer bat izango da, eta ordubetez bertan lan egingo dute *Calignometrias* sortaren oinarriko gakoaren pertzepzioaren inguruan, hainbat jardura sensorial erabiliz. Koldo Sebastianek, horretarako, manipula daitezkeen material batzuk prestatu ditu, eta haiekin erakusketako sorkuntza-prozesuak birstortu ahal izango dira.

Bigarren orduan zehar *Calignometriak* erakusten diren aretoetatik ibilbide bat egingo da. Sebastianek hitzez bere sorkuntza-kezkak igorriko ditu, eta bertaratzen diren pertsonekin erakusketako edukiaren gainean

solasean ariko da.

Jarduera horrekin *Calignometrias* erakusketa ikusteko bisita-sortari hasiera emango zaio, artistak berak gidatuta. Iraileko igande guztietan, 12:30ean, interesa duten pertsonak ibilbide horietan parte hartu ahal izango dute aldez aurretik Nafarroako Museoaren sarreran gonbidapena jaso ondoren.

Halaber, irailaren 19tik aurrera, Koldo Sebastianek Nafarroako Museoan "Museoa: baliabide didaktikotik esperientzia estetikora" izeneko mintegia zuzenduko du Lehen Hezkuntzako irakasleentzat.